

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Administrazio interesatuak</i>		<i>Kontzeptua</i>
8/2011	R4/2016	2016-04-12	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Pertsona juridikoaren zerga-egoitza. Auzitara eramandako administrazioaren amore ematea.

R4/2016 Ebazpena

08/2011 Espedientea

Vitoria-Gasteiz, 2016ko apirilaren 12a

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Ituneko Arbitraje Batzordeak, Gabriel Casado Ollero batzordeburuak eta Isaac Merino Jara eta Javier Muguruza Arrese batzordekideek osaturikoak, honako hau

ERABAKI DU

Eratu zenetik (2005eko otsailaren 15a) 1 ERAKUNDEAren (---- IFZ) zerga-egoitzaren harira sortutako desadostasuna ebazteko Zerga Administrazioiko Estatu Agentziak Bizkaiko Foru Aldundian planteatu zuen eskumen-gatazkari buruz. Gatazka hori Arbitraje Batzordean izapidetu zen, 08/2011 espediente-zenbakiarekin, eta Gabriel Casaro Ollero jardun zuen txostengile.

I. AURREKARIAK

1.- Gatazka hau Zerga Administrazioiko Estatu Agentziak (AEAT) planteatu zuen Bizkaiko Foru Aldundian (BFA), haren zuzendari nagusiak 2011ko martxoaren 18an sinatutako idazki baten bidez. Idazkia Arbitraje Batzordean erregistratu zen biharamunean, martxoaren 22an.

AEATk, bere azalpen-idazkian adierazitako aurrekarietan eta zuzenbideko oinarrietan oinarrituta, 1 ERAKUNDEAk –aurrerantzean, “1 ERAKUNDEA” edo “erakundea”– eratu zenetik (2005eko otsailaren 15a) zerga-egoitza Bizkaian izan zuela ebazteko eskatu zion azkenean Arbitraje Batzordeari.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Administrazio interesatuak</i>		<i>Kontzeptua</i>
8/2011	R4/2016	2016-04-12	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Pertsona juridikoaren zerga-egoitza. Auzitara eramandako administrazioaren amore ematea.</i>

2.- 1 ERAKUNDEA 2005eko otsailaren 15eko eskritura publikoaren bidez eratu zen, haren bazkide eta administrari bakarra 1ENPRESA izanik. Erakunde horren partaidetzen 100eko 100, bestalde, ENPRESA TALDE batek dauzka, eta karguan ordezteko pertsona fisiko 1 ORDEZKARI jauna izendatu zuen.

Hasiera batean, egoitza soziala eta fiskala 1 EGOITZAn ezarri zen, Santiago de Compostelan, eta geroago, 2006ko urriaren 27an, egoitza hiri bereko 2 EGOITZARA aldatu zutela jaso zen eskriturretan.

Erakundearen helburu soziala, Merkataritza Erregistroan dagoen informazioaren arabera, haize-parkeak eraiki eta ustiatzea eta landa- eta hiri-higiezinak eskuratu, erosi, alokatu eta saltzea da.

3.- Gatazka jarri aurretik, AEATk neurri hauek hartu zituen:

1. Erakundearen zerga-egoitza egiaztatzeko prozedurari ekin zion. Galiziako AEATko Ordezkaritza Bereziaren Eskualdeko Ikuskaritza Bulegoak bisita bat egin zuen 2010eko ekainaren 21ean 1 ERAKUNDEAK Santiago de Compostelako 2 EGOITZAn aitortutako egoitzara, eta ikusitako egitateak, eskatutako dokumentazioa eta sozietateak emandakoa diligentzian jaso ziren. Geroago, 2010eko uztailaren 5ean, sozietatearen ordezkari bat izan zen AEATk Coruñan dituen bulegoetan, eta diligentzian dokumentatu zen haren bertaratzea.

Halaber, 2010eko irailaren 28an, Madrilgo AEATk bisita bat egin zuen ENPRESA TALDEAK Madrilgo 3 EGOITZAn dituen bulegoetara. Bisita horretan, informazioa eskatu zen taldea osatzen duten eta haize-parkeak sustatzen edo sustatu dituzten sozietateak kudeatzeko, administratzeko eta gobernatzeko moduari buruz. Eskuratutako informazioa data bereko diligentzian dokumentatu zen.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Administrazio interesatuak</i>		<i>Kontzeptua</i>
8/2011	R4/2016	2016-04-12	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Pertsona juridikoaren zerga-egoitza. Auzitara eramandako administrazioaren amore ematea.

Erakundearen zerga-egoitza egiaztatzeko prozeduran egindako jarduketak, zergapekoak emandako dokumentazioa eta administrazioaren esku zeuden gertakariak eta aurrekariak ikusita, Galiziako AEATko Ordezkaritza Bereziak txosten bat egin zuen, 2010eko urriaren 27koa, eta, han ondorioztatu zuenez, zergapekoak Bizkaian izan zuen zerga-egoitza 2005eko otsailaren 15etik, eratu zenetik.

2. AEATk 1 ERAKUNDEAREN zerga-egoitza Santiago de Compostelatik BIZKAIRA aldatzeko prozedurari ekin zion, Ekonomia Itunaren 43. artikuluan oinarrituta, eta ondorioak 2005eko otsailaren 15etik zirela, eratu zenetik.

Bere azalpen-idazkiari atxikitako diligentzietan egiaztatu eta dokumentutako datu eta egitateetan oinarrituta, AEATren aburuz, “Santiago de Compostelako bulegoak zerbitzu tekniko baina ez du eman, eta hura ezin da identifikatu [1 ERAKUNDEAK] BIZKAIAAn egiten duen egiazko administrazio-kudeaketarekin eta zuzendaritzarekin”; hortaz, 2010eko abenduaren 23an Zerga Agentziak Bizkaiko Foru Aldundiari jakinarazi zion, Itunaren 43. Bederatzi artikulua arabera, berriaz eman behar zuela bere iritzia proposamenari buruz, hots, 2005eko otsailaren 15tik –eratu zenetik– erakundearen egoitza Santiago de Compostelatik Euskal Autonomia Erkidegorako (zehazki, Bizkairako) aldatzea atzera eramateari buruz; eskaera horri Galiziako AEATko Ordezkaritza Bereziaren 2010eko urriaren 27ko txostenaren kopia erantsi zion.

Zerga-egoitza aldatzeko proposamena BFARI jakinarazi zitzaionetik bi hilabeteko epea igaro denez eta hari erantzun ez dionez, Arbitraje Batzordearen Araudiaren 13.1 artikulua arabera, AEATk pentsatzen du BFA ez datorrela bat zerga-egoitza proposatu zitzaizkion atzeraeraginezko ondorioekin aldatzearekin. EIABAREN 13.2 artikuluan aurreikusitako hilabeteko

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Administrazio interesatuak</i>		<i>Kontzeptua</i>
8/2011	R4/2016	2016-04-12	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Pertsona juridikoaren zerga-egoitza. Auzitara eramandako administrazioaren amore ematea.</i>

eperen barruan BFaren erantzunik egon ez denez gero, AEATk gatazka hau planteatu du.

4.- Arbitraje Batzordeak tramiterako onartu zuen gatazka 2012ko urriaren 29ko saioan, eta alegazioak egiteko eskatu zion BFari. Epea eskatutakoaren arabera zabaltzea onartu ondoren, hark alegazioak aurkeztu zituen Koordinazio eta Laguntza Teknikoaren zuzendariordearen 2013ko urtarrilaren 16ko idazki baten bidez, zeinaren sarrera hurrengo 17an erregistratu baitzen. Han, azaltzen dituen aurrekarien eta zuzenbideko oinarrien arabera, erakundearen zerga-egoitza araubide erkideko lurraldean zegoela ebazteko eskatzen dio Arbitraje Batzordeari.

5.- EIABAREN 16.4 artikuluan aurreikusten den espedientea ikusgai jartzeko izapidean, Bizkaiko Foru Aldundiak azken alegazioak egin zituen, aipatu foru ogasuneko Koordinazio eta Laguntza Teknikoaren zuzendariordearen 2013ko urriaren 4ko idazki baten bidez. Han, “osorik berresten dira Bizkaiko Foru Aldundi honek 2013ko urtarrilaren 16an arbitraje prozedura honetan egindako alegazioak, zeinak kopiatutzat jotzen baitira prozeduraren ekonomiaren alde”.

6.- Bestalde, Zerga Administrazioko Estatu Agentziak alegazioak aurkeztu zituen 2013ko urriaren 10eko idazki baten bidez, zeinaren sarrera hurrengo 14an erregistratu baitzen. Idazki horretan, gatazkaren azalpenetan jasotako aurrekari eta zuzenbideko oinarri guztiak berretsi eta kopiatutzat eman ez ezik, BFAk emandako argudioen kontra egiten du AEATk, eta bere nahia berresten du, uste baitu Foru Aldundiak kontra emandako alegazioek ez dutela lortzen hura indargabetzea.

7.- 1 ERAKUNDEARI 2013ko irailaren 13an jakinarazi zitzaion espedientea ikusgai jarri zela, eta ez zuen alegaziorik aurkeztu Arbitraje Batzordean.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Administrazio interesatuak</i>		<i>Kontzeptua</i>
8/2011	R4/2016	2016-04-12	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Pertsona juridikoaren zerga-egoitza. Auzitara eramandako administrazioaren amore ematea.</i>

8.- 2016ko apirilaren 4an, Bizkaiko Foru Ogasuneko Koordinazio eta Laguntza Teknikoaren zuzendariordearen idazkiaren sarrera erregistratu zen. Han, Ogasuneko zuzendari nagusiak aurreko apirilaren 1ean hartutako erabakia azaldu zen. Hauxe erabaki zen han: “Bizkaiko Foru Aldundiak amore ematen du aipatu arbitraje-gatazkan, haren helburua gertatzez galdu delako; izan ere, Arbitraje Batzordeak (...) nahiz Auzitegi Gorenak desadostasuna ebatzita utzi dute kasu honen arrazoiarekin bat datozen kasuetan”; eta, azaldutakoaren arabera, Arbitraje Batzorde honi eskatzen dio erreferentziatzko gatazka amaitutzat jo dezala, Bizkaiko Foru Aldundiak amore emateagatik.

9.- Prozedura abenduaren 28ko 1760/2007 Errege Dekretuak onartutako Arbitraje Batzordearen Araudian xedatutakoaren arabera izapidetu da.

II. ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1.- Gatazka eragin duen kontu bakarra AEATk BFAn planteatutakoa da eta 1 ERAKUNDEAREN zerga-egoitza ezartzera mugatzen da.

2.- Koordinazio eta Laguntza Teknikoaren zuzendariordeak 2016ko martxoaren 30ean Ogasuneko zuzendari nagusiari amore emateko egindako proposamenak azaltzen duenez, gatazka honen helburua “bat dator funtsean ENPRESA TALDEAREN haize-parkeko sozietateen zerga-egoitzari buruzko 31/2010, 3/2011, 4/2011 eta 5/2011 gatazkak eragin zituenarekin, zeinak Arbitraje Batzordeak ebatzi baititu (...), Zerga Administrazioako Estatu Agentziaren nahiak onartuz eta, ondorioz, Bizkaiko Foru Aldundiak defendatutako argudioen aurka”; eransten duenez, BFAk “administrazioarekiko auzi-errekurtso bana jarri zuen Auzitegi Gorenaren Hirugarren Salan lau arbitraje-gatazka horiek administrazio-bidean amaiarazi zituzten Arbitraje Batzordearen lau ebazpenen aurka, eta Auzitegi Gorenak, 2015eko ekainaren 18ko eta abenduaren 15eko epaien bidez, jarritako errekurtsoak ezestea eta

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Administrazio interesatuak</i>		<i>Kontzeptua</i>
8/2011	R4/2016	2016-04-12	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Pertsona juridikoaren zerga-egoitza. Auzitara eramandako administrazioaren amore ematea.</i>

Arbitraje Batzordearen ebazpenak baiestea erabaki du”. Horregatik guztiagatik, hauxe ondorioztatzen du: “Une honetan behin betiko ebatzita geratu dira, auzibidean eta gauza epaituaren izaeraz, arbitraje-gatazka honetan eztabaidatzen ziren kontuak, eta, beraz, ez dauka zentzurik haiek indarrean irauteak”.

3.- Azaldutakoa ikusita, noski, ez zen arrazoi juridikorik egongo Bizkaiko Foru Aldundiak besterik gabe pasiboki onartzeko, hari eutsiz, gatazka baten liskarra hura eragin zuen desadostasuna (egungoarekin funtsean bat datozen beste gatazka batzuetan oinarri berberekin eragindakoarekin bat datorrena) auzibidean behin betiko ebatzita geratu ondoren. Hori dela-eta, gatazka honen arrazoiekin bat datozenetan Arbitraje Batzorde honek hartu eta Auzitegi Gorenak berretsitako ebazpenek erdietsitako irmotasunak, administrazio publikoen arteko harremanetan eskatu behar diren koherentziarako, fede onerako eta zintzotasun instituzionalerako betebeharrekin batera, horren arabera jokatzera behartzen zuen gatazka planteatu zitzaion administrazioa.

Kasuaren inguruabarrak kontuan hartuta, amore ematea izan da Bizkaiko Foru Aldundiak ondorioz 8/2011 gatazkan jarduteko modua; izan ere, “behin betiko ebatzita geratu dira, auzibidean eta gauza epaituaren izaeraz, arbitraje-gatazka honetan eztabaidatzen ziren kontuak (...), eta ez dauka zentzurik haiek indarrean irauteak”.

Azken batean, hura da Arbitraje Batzorde honen Araudiaren 9. artikulua arabera ere espero litekeen erabakia; izan ere, “ez da inola ere aurkeztu ahal izango gatazkarik justizia-epaitegien aldetik jada ebatzita dauden (...) gai buruz” eta, beraz, epaia egondakoan ez legoke argudiorik, arrazoi berberagatik, gai horiek “justizia-epaitegien aldetik jada ebatzita” egon aurretik abiarazitakoen liskarrari eusteko.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Administrazio interesatuak</i>		<i>Kontzeptua</i>
8/2011	R4/2016	2016-04-12	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Pertsona juridikoaren zerga-egoitza. Auzitara eramandako administrazioaren amore ematea.

4.- Amore ematea 30/1992 Legean aurreikusita egon ez arren –lege horretara igortzen du EIABAren 8. artikulua bere funtzionamenduaren araubideari lotutako gai guztietarako–, badago aurreikusita, ordea, atzera egitea prozedura amaitzeko modu gisa (30/1992 Legearen 90. eta 91. artikulua), eta batzorde honek aplikatu egin du gatazka planteatu zitzaion administrazioak administrazio auzi-jartzailearen nahiari berariaz amore eman zion prozeduretan (hala, ebazpen hauetan: abenduaren 20ko R3/2010, 34/2008 espedientea; maiatzaren 26ko R16/2011, 25/2010 espedientea; urriaren 29ko R14/2012, 24/2012 espedientea; abenduaren 19ko R8/2014, 90/2011 eta 96/2011 espediente pilatuak; martxoaren 2ko R4/2015, 20/2012; eta uztailaren 16ko R13/2015, 16/2014 espedientea) eta, zio berberagatik, aplikatu behar diogu BFAko Ogasuneko zuzendari nagusiak 2016ko apirilaren 1ean AEATk planteatutako 8/2011 gatazkari amore emateko hartutako erabaki honi ere.

Beraz, Arbitraje Batzordeak

ERABAKI DU

1.- 8/2011 gatazka amaitzea, Bizkaiko Foru Aldundiak ondorioz erabakitako eta 2016ko apirilaren 4an jakinarazitako amore emateagatik.

2.- Erabaki hau Zerga Administrazioiko Estatu Agentziari, Bizkaiko Foru Aldundiari eta 1 ERAKUNDEARI jakinaraztea.